



Kristau-heziketak lehena behar ahal du izan, munduak daraman aldakuntza presatia ikusirik?

Ametsezko edo ideia hutsezko munduak baino ez ote estimu handiago bizitzaren mailako prasiak eta esperientziak? Izan ahal daiteke, egün, kristau-molde bereziko kulturarik?

Hau horrela, irakats edo eman ote liteke ikastolan geografia edo matematika irakasten den bezala Jainkoaren berri?

Hona haragi bizian planteaturik dugun zenbait galdekizun.

AINTZIN - SOLASA

Ageri denez, apur bat atzeratua heldu da oraingo alea. Aste Sandu eta oporketa ondoan moldatu behar izan da. Ez da beste arrazoinik.

Zenbait idazle berrik hartu du parte eta gaiak ere desberdinak ematen dira. Iruinekoak jarraitzen dute zintzoki bere haria. Erne andereño! X. Kintanaren "Euskal-kultur.titulua" delakoan esaten denaz, aski interesgarri bait liteke hainbat eta hainbatentzat. Metodo globala aipatzen duen artikulua ere on da jorratu bat eman diezaiozun; eta azken aldi honetan bezala, gurasoekiko har-emanak okupatzen du sailik handiena. Agidenez, bizi den arazoa da hau: edo irakasleen artean, edo gurasoengan, edo-eta, o-hobekiago esan, bai batzuegan bai besteengan.

Bestetik, bakar edo bestek atsegin ez zaiola-eta baja eman arren, aski poliki goititzen doha irakurleen multzoa eta ale gehiago argitara eman beharrean gertatu gara. Eta hori, nik dakidala behintzat, zabalkunde berezirik egin ez delarik. Agian, beharko litzake, bai, bakoitzak bere inguruan harpidedun bat edo beste egin dezan. Alabaina hori baino interesgarriago jotzen dugu: irakurri, maiseatu, gai biziak idatzi eta funtsean bitarteko material baliotsu bat gerta dadila gure aldizkaria, irakasleon eta ikastolen zerbitzutan.

METODO GLOBALAZ

Egun, gure ikastoletako zenbait irakaslek, askok behar bada, metodo globala erabili nahi dute. Globala erabiltzeko erak nahiko ezberdina erabiltzea daiteke, batetik bestera. Eta azkenik globala itxuraz ematen den zenbait metodo egiazko globaltasunetik urrun gerta daiteke.

Nolako globaltasuna lortu dugun jakin dezagun eta egiazko globaltasunerat hurbilduz johan gaitezten, datorren zenbakitik globaltasunaz eginiko zenbait saio argitaratzen hasiko gara. Eritziek elkarrekin konfrontatzeko, lehenik, ezagutu egin behar ditugu eta hemendik has gaitezke. Beraz, hauek bildu zain, hona hemen globaltasunaz gogorazio bakar batzuk.

Normalki metodo honetan abiaburutzat esakun ximple batzuk hautatzen dira eta hauen esanahi orokarrari, so ikasleak jartzen dira. Oinarritzko elementak ez dira ez letra soilak ez hitzak deskonposatuz agerian uzten diren silabak ere. Pentsamendua bere osotasunean nabarmentzen dela posible gertatzen da espresatu nahi duguna batetik eta espresio bideak bestetik berezteak. Lehenik, komunikatu nahi duguna baloratzen dugu eta ondoren komunikazio honen mekanismoa uzten. Pentsamendua, Hitz mintzatu naiz idatziaren mekanismoaz gain, baloratzen dugu eta bata bestearen ondorio eta kanporatze bezala ikusten.



Bestela mekanismo utsean erortzen gara. Dudarik ez gure teknizismo honek pentsamendu baten sakontasunari baino areago, pen-

tsamendu beronen espresio idatziari adi egotea jarri gaitu. Hone la,ongi mintzatzen ez den bati barre egiten diogu, nahiz-eta berak esana guk uste baino askoz ere sakonago eta errespetagarriago izan.

Zer esanari baino gehiago,ustekabean,nola esanari kasu egiten diogu. Antzerako zerbait gertatzen zaiku haurren hizkuntza lantzerakoan. Nola esan zer esanaren heinera zuzentzen eta jorratzen johan ordez,nahi izaten dugu "nola-esana" hasera batetik akasgabea izan dadin. Eta ia beldurtzen gaitu orain zuzentzen ez duguna, gero zuzen-ezina izanen dela pentsatzeak.

Bateren batek pentsatu ere pentsa dezake pentsamendua eta bere espresioa elkarrekin ongi itsasirik behar dutela egon eta bien arteko eten oro arriskugarria dela. Ni neroni ere eritzi honetakoa naiz eta ez nuke sasi-dualismorik planteatu nahi baina bigarren memento honi hainbesteko garrantzia emanaz lehen mementoa azpibaloratzea heltzen garela uste dut.

La aspalditik klasifikaturik dugu,urtez urte,nola esanaren pausok,zein neurritan eman-erazi behar dizkiogun haur bati. Erregelala hau bete dadin saiatzen garen bakoitzean,haurra dugu erregela baten esanetara jartzen eta Ez erregela haurraren esanetara. Halakoko urtetan honako ortografiatzko legeez jabeturik egon behar du eta ez dakit zenbat garren maila hasi orduko batere hutsik bota gabe idatzi behar du. Ikuspegi honekin lanean ari garela beti ere zail izanzen zaku,hain sarritan aipatzen ditugun haurraren prozesoreziak arrespetatuz,heziketaren prozesoa gidatzea. Nik ezaguriko eskoletan,behinik behin,lastertasuna eskatzen da eta berehala jendea gonbarazio ximpleenetan galtzen da. Teoriaz haurrak bere bideari,bere kabuz ekin eta eutsi egin behar dio. Praktikaz ene haurra guttienik aldameneko haurraren maila bizkortasunez ibili behar du.

Geure burua konformatzeko eta gure kontzientzia lasatzeko ateratzen dugun azken aitzekia,guztion ahotan dabil. Nahi-ta-ez gauden estatu edo egoera honen legeetara makurtu behar omen dugu.

Are gehiago, guraso askok, egun gertatzen den bezala, hau eska ba-
lezaigute. Ez, nahi eta nahiez pertsona bakoitzaren eskabideen g-
rantzunean egin behar da lana. Berehala ikusiko dugu metodo glo-
bala¹ erabiltzerakoan oraintsu esanak duen garrantzia.

Ez dugu denbora luzeegirik esakun osoak eta hitz oso-
ak aztertzerakoan ematen. Jendea presaka ari da, ondorio seguru-
rik izanen ote duenentz zalantzan eta hurren pausora lehena fin-
katzeke igarotzeko presa handiz. Honela hasi duen saiakera bel-
durraren eraginez azkartu egiten du, bere bide normaletik atera e-
ta sasi-saiakera bihurtu.

Zenab² aldiz, gogo biziz metodo honi heldu dion jendeak, pro-
grama bete beharrak, gurasoen bultzadak eta norbere buruaren se-
gurtasunik ezak izaturik bide erdian geratzen da. Eta bigarren aldi-
diz prozesu berari ekiteko behar duen adorea galdu egiten du?!³



Baina gatozen metodo globalaz beraz
zertxobait konkretoki esatera.

Metodo global hau lehenik sistematiko
ki proposatu zuena, Decroly, pedagogo
famatua izandu zen. Globalez aritze
kotan esakun ximplea hartu behar da oi
narrizko ikas-gai bezala. Halere esakun
hau oso ezberdina izan daiteke. Eta i
zan daiteke baita ere irakasleak propo-
saturiko esakun ximple bat. Batetik
bestera alde handia dago. Lehenean
haurraren beraren pentsamendua egiaz

koa hartzen da abiaburu legez, bigarrean oster aurrari interes
garri zaion arren kanpotik proposatzen zaion pentsamendua. Gerora
Decroly-k landuriko metodo honetan irakasleek aurkitu duten a
katsik nabarmenena hau izan da agian, hots, , haurraren pentsamen
dua serioski ez hartzea. Egin daiteke lana gogor eta mekanismoak
oso desarroila daitezke ikasle baten kezka biziak behar bezala go
goan eduki gabe. Berriz ere mekanismoak ikasleak bizi dituen ara

zoez gain batoratzea helduko ginake. Haurrak eskribatzen eta irakurtzen ikas dezake, bere barneko kezkarik agertzeko posibilitaterik ematen ez zaiola ere. Baina haurra nortzeko bere pentsamenduz bere bizia espresatuz johan behar du. Bere kezkek kanporatzen dituen heinean bere burua ezagutzera eta nortasunaren jabetzara heltzen da. Eta bere barnean areago sartuko da bere barna kanporatzeko handituz dohakion neurrian. Dialektika hau biztu eta elikatzen ez bada mekanismo bat trebetzearen pertsonaren barne aberastasun bitxienak loturik gera daitezke.

Metodo hauetaz mekanikoki gogor jabetzen saiatu den denboraren zehar ikasleak ez du bere barneko egoera ondu, ez du egiazko elkarrizketarako prestaketarik izan edo hobeto esan hau egin asmoz mugitu den bakoitzean galerazi egin zaio.

Ariketa batzuk besterik ez ditu egin eta aurrerantzean espresio bide jatorrizkora itzultzera nekez erdietsiko du. Gero eta maizago entzuten dugunez, lehen esperientzia hau, nortasunaren osaketarako oso garrantzi handiko, oinarrizko izanik, eginiko oker bide guztia desegin egin beharko jatorrizko espresio bidera heltzeko. Eta hau oso zail da eta gehienetan eztabaida edo gatazka baten iturri izan daiteke.

Freinet-en metodoan aldiz, teknika alderdia, hots, ariketaz ihardukitze hau bigarren mailako dugu eta haurraren espresioa aberastu eta askatzeko egin behar dugun ahalegina lehen mailako. Haurra lehenik eta batikbat bizi egiten da. Mugitu eta kezkatan murgiltzen dohan bezala, espresatu beharrez aurkitzen da, elkarrizketara jotzeko gogoaz azaltzen du. Egunero du zer esanik eta haurraren pentsaerak berez du balioa, ez zenbait ariketarako gaia eskaintzen dautkulako soilki.


Gero analisiaren prozesuari gagozkiola Decroly-ren zenbait gauza balio handiko dugu baina beti ere pedagogiaren kontesto zabal baten barnean. Alferrik maiz aski kontrakoa esaten dugun arreren, nekez errespetatzen dugu ikasle bakoitzaren prozesu berezko hau.

ANALISIA

Sar gaitezen ikas-gela batek duen bizitasunean. Egunero haurrak eskolan bezain laster irakaslearen mahainaren inguruan bilduko dira. Halako batetan Andonik esaten duena denek arreta handiz entzuten dutela, ikusiko da. Andonik zera esan du: Gaur nere osaba ezkontzen da. Ni ere ezkontzan izanen naiz. Andonik ezkontzaz hitz egiten duen artean irakasleak gaia lantzeko posibilitateak ikus ditzazke. Behar bada zenbait xehetasun eskatuaz, galdera batzuk eginaz. Memento hartan Andonik esana inportantea eta ikaskide guztien begiak haren ezpainetara so daude. Bat-batean irakasleak bota dezake: Zer derizkiozue? Ez ahal da interesgarri Andonik esan daukuna? Zergatik ez dugu idazten? Idatzi? Baina... bateren batek esanen du bai besteek esanen luke tena. Baina guk ez dakigu idazten. Oso erraz da hau egitea eta oraintxe bertan nola egiten den ikas dezakegu.

Harbelera johan eta astiro-astiro, guztiak egiten dituen mugimenduak ikus ahal ditzaten, letra handiz esakun huraxe idatziko du. Aurrez haur bakoitzari banaturiko orrian gauza bera egin dezaten eskatuaz. Agiria denez, lehen pentsamendu hau ez da garbia ez zuzena izanen, baina hastepenetan ezin gehiago eska. Zinez garrantzizko, haur bakoitzak bere orrian gauza berdina egin dezan izanen da. Gero bakoitzak bere orria marrazkiz nahiz beste zerbaiti asmakizunez apainduko du.

Adibide honek testo librearen hasera markatzen du eta nola bait mekanismo hutsaren eragozpena gainditzeko bidea erakusten du. Haurra orain pozaren pozez egone da beren lehen idatzia eskuetan duela. Eta inprentarik balego, testoa inprima daiten gero gurasoek ikus dezaten etxera eramanez. Gurasoei erakutsiko die egun batez idazten ikasi duelakoan haurra oso harro egonen da.



Lan honi jarraiki, oso garrantzi handiko da elementa berri bat sartzea, hots, KARTELOINA.

Haurrek idatzi duten testo hori marrazkiz apaintzen diharduten artean, irakasleak testo bera, karteloin batetan, oso letra handi idatzi eta horman zintzilik ipiniko du. Goiko aldean letra normalez eta behekoan inprenta moldez eta erdian gaiari dagokion marrazki bat eginaz. Haurrek bere lana amaitzen dutenean irakasleak esan dezaieke :Hara nik ere gure testoa idatzi. Goian gehiengotan idatzi ohi dugun bezala idatzi dut eta behean liburuetan idazten den gisan.

Orain zintzilik dugula beti begien bistan ukanen dugu nahi dugun guztian irakur ahal izateko. Nahi ahal duzue zuek ere inprenta moldez idatzi? Hor dugu honetarako beharrezko dugun tresna hori eta denok parte hartzen dugula lana azkar egina eta ikasia dugu. Aterako duten lehen idatzi oso gogoko izanen dute, eta uste baino lehenago inprenta erabiltzen ikasiko dute.

Biharamonean egoki da berriz ere lehen testo haren esanahia guztiei oroi-eraztea. Ea nork dakien esakun hark zer esan nahi duen, galde baleza ia denek eskua jasoko dute. Honela ikasirikoa finkatuz johanen da. Ondoren hitz soilak non diren adieraz dezake, bakoitzak zer esan nahi duen, gehiegizko presarik gabe.

Sarritan eginen dituen galderen bidez ohartuko da berak uste baino lehenago ikasleek zenbait xehetasunez jabetu direla. Beti ere egoki da galderak, ustez atzerago dabiltzenei egitea. Lehen testotik honek dituen lan-posibilitateak ugari dira eta denak bateratsulantzen ari daitezke.

Hurrengo egun batez beste testo bat idatz dezakete eta lan berdintsua egin. Bi testo landuak direnean lan aberatsagoak egitera helduko dira. Korrespondentzia medio dela norbaitekin harremanetan baleude are hobe. Hartzen dituzten testoak zer esan nahi duten ikasten ahaleginduko dira, adimena landuz. Bi testoak elkarrekin gonbaratuz antza duten hitzak topatzen hasiko dira. Haserako silabak, erdikoak edo azkenekoak antzekoak izan daitezke. Ez gara hemen hitz hauek medio direla egin daitezken ariketa-joku guztiak azaltzen hasiko.

Baina joku hauk guztiak eraginik lan praktiko bat egin bageneza norbaitek pentsa dezake, estimulo hauek bultzaturik ez ote dugun azkarragi analisia mementora joko eta hurraren espontanitate ari irain eginen. Zailtasuna honetan datza, behar bada, estimulo hauek baliatzen jakitean. Dena den, estimuloak ez daitezke gaitzeritz, erantzun positibo baten iturri izan badaitez. Estimuloak bi ziago eta aberatsago izanen da hauen bidez egin daiteken analisia. Bestalde ez dago oso zehatz mugatzerik globaltasunaren eta analisiaren muga markatzerik. Gauzak gureganatzeko ahalmena globala eta analitikoa batera dela esan daiteke. Eta gainera errealitate baten gureganatzea izan daiteke globala bere zatiei gagozkiela eta aldiz analitikoa inguru osoari begira jarriarik. Zuhaitza globalki guregana dezakegu bere hosto eta adarrei gagozkiela esaterako eta halaber analitikoki paisaje bati begira. Baina agian norbait ni baino jakitunago izanen da hontaz mintzatzeko.

IÑAKI ELBERDIN



Hezurdunak Ikasteko Materiala

Gure azkeneko lanean ugaztunetaz esan genuen guztia guztia, esan genezake orain beste hezurdunetaz ere (arrain, ur-lurtar, narrasti eta hegazti). Hala ere, animalia sail honetan gauza berezi batzuk ikus ditzakegu.

Lehengoan bezala bilketa, gordeketa eta ikasketa aztertu-ko ditugu:

1 / Bilketa: Narrasti eta ur-lurtarrak, gorputzeko hobertasuna aldakorra dutenez gero, udaberrian eta udaran ikusten dira batez ere; baina neguan ikusiez gero arrapatzen errazago izaten dira, mugitu gabe egoten direlako. Udan ikusten baditugu berriz, itzalera bidaltzea izaten da onena, bizitasun asko galtzen dutelako.


Arrainak, arrandegian eros daitezke hilak, eta bizirik nahi baditugu ere, badira saltzen dituzten etxeak.

2 / Gordeketari buruz, ugaztunetaz esan genuenaz gainera, esan beharra dago, hezurtza edo kaskezurra gorde nahi bada, denbora gutti batetan behar direla egosi; arrainetan batez ere, hezur guztiak oso erraz askatzen dira-eta.

3 / Ikasketa: Barrundik ikasi nahi badira, lehengoan izendatu genuen "Atlas de anatomía animal" liburuan, agertzen dira animalia sail guztien disezioen marrazkiak.

Bizirik gordetzea berriz, ez da zaila eta ikasteko posibilitate handiak ditu. Hegaztiak denok dakigu karioletan eduki daitezkeela.

Narrastiak ere kaiola egokietan gorde daitezke. Horretarako, kaiolaren azpia hondarrez eta harri kaxkarrez estali behar da. Adarren bat eta harri handixeagoak ere jarri behar zaizkie. Ura



ontzi zelai edo axal batean jarri eta zizareak, mamutxak eta haragi zatiak jateko eman.

Sugeek ez dute egunero jan beharrik eta batzuetan luzaroan irauten dute janaririk gabe.

Igel eta apoak ere kaiolatan gorde daitezke. Kasu hauetan azpia lurrez estali eta landare

en bat jartzea komeni da. Baita ere urez betetako ontzi txokon bat. Igelek batez ere ura beti gertu behar dute; zizare eta euliak jan oi dituzte.

Ur-lurtarren hantz-aldatzea ikusteko, hoiien arraultzeak udaberrian putzuetan har daitezke, muki hantzeko piloetan egoten dira. Urez betetako ontzi batean gorde, eta apaburuak hantz aldatzera dohazenean plater zelaiago batera aldatu.

Arrainak badakigu denok kristalezko ontzietan eduki daitezkeela, ura maiz xamar aldatuaz edo gomazko tutu baten bidez haize eman eta osigenatuaz.

Interesgarria derizkiogu, hezurdunen taldea klasifikazio aldetik bere lekuan jartzea. Honetarako hemen agertzen ditugu sailaren bereizitasunik garrantzitsuenak eta eboluzioa.

1 / Hezurdunen talde osoaren bereizitasunak :

Barne hezurdura dute, eta honek hogeitamar bat hezurrez osaturiko kate bat (bizkar-hezurra); honen barruan kiriozko ornamuina doha.

Burua ongi desarroilatua eta bertan burumuina eta zentzuak.

Bizkar-hezurak bukaeran isats bat osatzen du.

2 / . HEZURDUN SAIL BAKOITZAREN BEREZITASUNAK:

	Larru	Odol	Bihotz	Ingurua (3)	Arnasa (4)	Ugalketa
Arrainak	Eskatak: (8)	Hozberotasun aldakorra. (1)	2 (2)	ura	zakatzez	errule (5)
Ur-lurtar	Bilutsik	"	3	ura haizea	zakatzez birikez	errule
Narrasti	eskatak	"	4	haizea	birikez	errule bizi- errule (6)
Hegazti	Lumak	Hozberotasun aldagaitz	4	haizea	birikez	errule
Ugaztun	Ile	"	4	haizea	birikez	erditzai- le. (7)

(1).- Odolaren hozberotasuna arrain, ur-lurtar eta narrasti etan aldakorra da; honek esan nahi du inguruko hozberotasuna dute

la, baina ez odola hotza dutenik. ~~W~~ Egazti eta ugaztunak berriz, be ti hozberotasun berdinean dute gorputza.

(2).- Hemen adierazten da sail bakoitzak zenbait zati edo zulo txo dituen bihotzean; hau da zenbait sapailu edo sabeltxo.

(3).- Ingurua hitzarekin adierazten da, bizikia inguratzen duen materia. Izadian bi inguru bakarrik daudela esan daiteke, ura eta haizea. Beraz, ingurua ez da bizi lekua (basoa, lurra, putzua edo abar.)


(4).- Arnasa hartzea osigenoa ingurutik odolera iragaitea da; ingurua ura denean, osigenoa han berean nahasia hartu behar da eta hau zakatzen bitartez egiten da; haizea denean biriken bitartez tez.

(5).- Erruleek arraultzeak egiten dituzte eta arraultzeak e gin denetik umea jaio arte denbora bat igarotzen da.

(6).- Bizi erruleek ere arraultzeak egiten dituzte baina e gin eta berehala jaiotzen da umea.

(7).- Erditzaileen umeak bizirik jaiotzen dira.

(8).- Arrain eta narrastien eskatak ez dira berdinak; arrainenak larrube edo dermikoak dira eta hazi egiten dira. Ur-lurtarrak larru-azaleko edo epidermikoak dituzte eskatak eta ez dira hazitzen. Horregatik azalez aldatu egin behar dute.

3 / .- HEZURDUNEN EBOLUZIOA

Hezurdun sail guztiak arrainetarik datoz. Antzinako arrain sail batzuetarik, eboluzioz orain ezagutzen ditugun arrainak agertu dira; sail batzuk galdu egin dira eta beste batzuetarik sortu ziren antzinako ur-lurtarrak. Honela gertatu da beste talde guztiekin ere.

Hegazti eta ugaztunak narrastietarik datoz.

Eboluzioan aurrera goazen heinean, animaliak uretik independitzatzen dohaz eta burumuina konplejoagoa egiten.

BIBLIOGRAFIA

Manual de la Unesco para la enseñanza de las ciencias.

Ed. Sudamericana. Buenos Aires.

Liburu honek zientziez oso esperientzia erraxak eta politak dakartzi. Erraz bila daitekeen materialakin eginak. 200 pta. inguru balio du.

IRUINEKO



Setsu arazoa Gurasoekin

Haurra askatasun giro batean, hezi nahiez gero behar beharrezkoa ikusten dugu, gurasoekin har-emanetan, hitzegiten, elkarrekin heziketa lana nola egin aztertzen hastea.

Hau dela-eta kurso honen hasieratik andereño bakoitza bere haurraren gurasoekin biltzen hasi ginen.

Gurasoekin hitzegin ondoren hilabete oro biltzea erabaki genuen eta horrela egin dugu. Erabilitako gaiak hauk izan dira gutti gora-behera :

- Kurso honetan noraino iritxi behar ginen ikusi (Programa).
- Ikastolan lana egiteko eraren aldaketa ikastola barruko organizazioa piska bat agertuaz.
- Honen ondorio bezala askatasuna zer den, eta askatasun horren barne haurra erresponsable izatearen garrantzia.
- Haurra erresponsable izate^{na} hel dadin ikastolan zer egiten den, eta baita ere denen artean etxean nola hasi eta zer bide erabili daitezkeen ikusi.

Gai hauk ikusterakoan dena beharrezkoa ikusten zen, eta nahiz elkarrizketan era berri honetan hastea zaila egiten zitzaiela agertu, beste batzuek etxean egindako beren esperientzien berri ematen hasiak ziren, eta horrela esperientzia hauk aztertuz puntu asko argitzen joan gara.

Otsailean egin nuen bileran azken aldian setsu arazoan buruz izan ditudan hainbat galdera eta afektibidade aldeko erreakzio batzuk agertzea pentsatu nuen. Gurasoek bere haurrek buruan duten kezka berri jakin zezaten eta aldi berean nik galdera horien zer erantzun, eman nien agertu eta beren iritzia jakiteko asmoz.

Setsualitate aldeko galderak hauk ziren :

- Nondik ateratzen da haurra.
- Nola hasten da sortzen.
- Partetan hilea ateratzen dala egia ahal da?

Galdera hauei eman nien erantzuna agertzerakoan, bereetako askori zaila gertatzen zitzaiola agertu zuten, baina galdera hauek erantzuterakoan egia beren mailan zen bezala agertzea beharrezkoa ikusten zuten.

Baina ez zen hain ondo ikusi nik agertu nuen beste puntu bat:

- Bi haur marrazki bat egiten ari ziran, eta bukatu ondoren neri erakutsi eta oso ondo zegoela esan nienean mutilak neskari musu bat eman zion.

Mutil honek hau egin zuala ikustean beste talde batek :

-Aiba, zer egin dezun, o..o...!

Laster elkarrizketa bat sortu zen eta honelako iritziak atera ziren haurrengandik :

- Zergatik ez dio musu eman behar ba, mutila izan bazen ondo ikusiko zenuten eta neskari eman diolako ez, zergatik?
- Musu ezkonduetakon ematen da.
- Musu emateko komunera joan behar da.
- Musu emateko ohean sartu behar da.

Hau dela eta, ia gehienak afektibidade expresio hauk ezkutu-an egin beharrezkoak, eta hain onak ez zirela ikusten zutela agertu nien gurasoei eta hori horrela hartzea penagarria eta nola zuzendu ikastea beharrezkoa ikusten nuela.

Batzuek onartu zuten nere iritzia, gainera alderdi hau erabat aldatzen doala eta honen aurrean haurra, nola hezi, zela arazoa ikusten zuten, baina gehienek oso heziketa hestua dute alderdi hontatik eta honelako iritziak zituzten :

- 8 edo 9 urtekin musu ematen hasten badira zer izango ote da 18-kin?
- Oraingo gazteria erabat gaiztakeriaz bete dago, maitasunik ez dago. (Maitasuna ezkontzara birjina joatea zela ba karrik ikusten zuten, eta orain edozer gauza egiten omen da, mendia egunak pasatzera joan e.a. ..)
- Dena libre utziz gero, izugarrizko desastrea izango da (Askatasuna nahi den guztia egitean dela pentsatzen zuten, nahiz-eta aurreko egunetan askatasuna zer den esplikat.)
- Nik behintzat nere alaba birjina izatea nahiko nuke ezkondu arte, eta hartan saiatuko naiz.
- Haurrari musu noiz eman behar duen eta noiz ez esplikat behar zaio, e.a. . .

Nahiz-eta iritzi hauk denak garbitzen saiatu askatasuna ez dela bakoitzak nahi duena egitea eta heziketa arazoa planteatu, kalera atera eta izugarrizko gauzak zabaldu dituzte giro txarra sortuz.


Ondoren berriro bildu eta gauzak garbitzen saiatu naiz baina ez ziren denak etorri eta piska bat kezkatu guraso batzuekin hitzegin ondoren, honetara iritxi gara:

- Arazo guztietan, baina batez ere puntu honetan gurasoak ezer ikasi eta ikusi gabe daudela, eta gainera lehengoari eutsiaz itsu itsuan.
- Baina ezinezkoa ikusten genuen hau honela izanik horretan gelditzea; haurra gogoan izanda konzepto garbitzen hasi beharren gaudela, nahiz oso zaila izan eta hortarako hasiera bezala kursilo bat eratzeko hitzegiten hasiak gara Aste Santu ondorako:
 - a) Haurra nolakoa den eta zer behar ditun maila bakoitzean, Sikologia alderditik

b) Haur hori nola hezi?

Benetan zail samarra iruditzen zaigu gurasoekin lana egitea, baina beharrezkoa, eta batez ere beste norbaitek puntu honetaz esperientziaren bat badu aldizkari honen bidez bere esperientzia hori agertzeko eskatuko genioke, denentzat interesgarri eta laguntza bat izango bait da.

M.J. Lasa.



GOIHERRIKO BAILARAN HERRIZ-HERRI

(II)

GURASOEKIN ELKARRIZKETAN

Aurreagoko alean beste zenbait punturen berri emango genizuela esaten genuen. Oraingo honetan gurasoei agertutako azalpena agertuko dautzuegu

1º.- Zer eskaintzen zion lehengo garaiko eskolak haurrari :

Garai honetan eskola baten egitekoa ximplea zen:

- Aritmetika, irakurketa eta idazketa lana, nozio batzuek. Haurrak apala behar zuen, obediente, irakasleak eginiko haur molde bati erantzun behar zion.

- Sistima hone esentzia zeharo menperatzailea zen.

Heziketa beldurkoi batek : "ongi hazitako haurra" azaltzen zuen.

Heziketa libre batek : "galbideko haur bat" .

- Helburu bakarra, haurrak ez dezala trabarik egin, ez dadila gogaikarri izan.

Benetan negargarria XVIII eta XIX garren mendeak agertzen daukun haurra tratatzeko era.

- Debekatzea zen egitekorik nagusia. Disziplina baten beldurra zen eskolaren lehenengo egitekoa.


- Horrela "haur masa" bat agertzen zaiku, menperatua, beldurkoi eta kemenik gabekoa.

Sistima hau erabiltzeko sekulako burukrazia bat muntatzen da. Guztia irakasleen eskuetan, hots, goikoen eskuetan, bekoek onartu beste egitekorik ez duten sistima. Haurra bere gisa eta bakarrik deus ez dezakeela ikas pentsatzen da. Konfiantza falta da. Bere

pentsakera libre baten baitan uzten badugu nagikeria batetan galduko den beldurra.

Eta bide honetatik giroak eskatzen duen haur bat emango diogu, hau da, "guztia dakiten batzuek" egin edo desegingo dute bere orde, berak onartu baizik ez duelarik. Beti ere zigorraren beldurpean.

Ez daiteke dudan jarri, honek zenbait ondorio argigarri baduela batzuentzat, baina batzuentzat bakarrik. Ez ditzakegu buruz azkar direnak bakarrik gogoan har. Denak zaindu behar ditugu azkenekoa eta izakeraz zailena dena ere bai.



Azterketak ziren aipatu dugun giro horretan sartu ahal izateko lehenengo go bideetako bat. "NOR" izan nahiriz hiz gero, bide hau urratu behar zuen lehenik.

Garbi dagoena da, emeki-emeki berderen, pentsa-moldeak argitzen ari direla. Geroz eta gutiago titulo baten garrantzia aipatzen da, eta titulo batek ezer guti eman dezakeela konturatzen hasirik gara (aztertu besterik ez, ikastolen prozesoa).

Sozietate eraketa aldatzen dohan heinean aldatzen ari da arrakastaren edo ongi ateratzearen konzeptoa ere.

Biharko giroak balore berriak izango dituen pertsona behar dugu. Bizitzako helburua ez da lehen bezala lan toki edo kargu baten arabera neurtzen.

Lehen aitak utzitako bulego bat ireki eta etorkizuna seguratua zegoen; berdin gertatzen zen sendagileekin, alde batera utziaz hainbat eta hainbat "entxufezko" zerizkien lan toki. Langileen kondiziotaz zertarako hitzegin!!

Gaur egunean, aurrera egin, eta herriaren zerbitzari izan nahi duen pertsona batek, bere egite eta erabakien erresponsable izan beharko du.

Gauzakiak, pertsonak, jokabideak edo gertakizunak juzgatzeko jakin beharko du lehenik. Gure lana arrazoiez juzgatze hau egiten laguntzea izango da.


ten laguntzea izango da. Gaur, gure ustez, xinplekeriak diren gaurzetan oinarritu beharko ditugu baina bide honetatik eramandako haur bat bihar zailki "haur masa" bat gertatuko da.

Bere erabakiak berak har ditzala. Ongi ala gaizki baina lehengo pausoak ezerk baino gehiago aberastuko du. Ez dadila eramandako izaki bat izan, baizik eta analitze ondoren bat bezala hartuko duen erabakiak pertsona oso baten izatez jabeturik geldi dadila.

"Erantzuter" jakin beharko du. Arrazoiez gauza bat ongi ikusten ez badu, bai andereñoak bai gurasoak agertu arren, beldurrik gabe bere ikuspegia emateko gai izan dadin.

Besteren ganako ardura hartzen kontuan izanik herrian murgiltzeak batik bat hau eskatuko diola. Honekin batera talde lana egiten.

Azkenik, kreatzen. Ezagutu eta jakiten duen guztia bere ahalmenez bideratu eta analizatuaz.



Pedagogia berri honen helburuak bete ahal izateko zer bitarteko ditugun edo bitarteko hauk zergatik eta zertarako erabiltzen ditugun azaltzea izan zen bigarren saio hontako lana.

Gure lana ez da noski beste eskoletatik bereizteagatik egiten dugun zerbait, ez da dotoreago delako, egun hala ikusten dugulako, baizik eta inguruak eskatzen daukulako.

Besterik gabe lana edo bitarteko hau k aztertzen hasiko gara.

ELKARRIZKETA

Elkarrizketa sortu dadin konfiantza dugu lehen kondizioa, hau errza denez geroz, erraza beraz haur hoei kin elkarrizketa izatea. Haurrak guregan konfiantzarik ez badu ez daiteke inolaz ere elkar izketarik sor eta gogoan izan dezagun irabaztea bezain erraza dela haur hoi en konfiantza galtzea. Horretarako nahikoa litzake guk bere galdera bati zaputz egitea, makurrago berriz gezur bidez erantzutea.

Honen bitartez haurrak lortuko duena :

-NOR IZATEA

Haurra hitz egiten ari denean berak esandakoa haintzakotzat hartzen dugula konturatzen denean, segurantzia sortzen zaio berekiko, badaki berak pentsaturikoa besteek ere jakin nahi dutela; hitz batetan, berak eta bere iritziak kontuan direla.

REFLEXIOA

Besteekin hitz egiteak aurrez reflexio bat egitera behartuko du.

-BESTEAK ERRESPETATZEA

Lagunek esandakoa entzun, hari galderak egin, haren esandakoaz arduratu.

-PROBLEMAK AZALDUTZEA

Elkarrizketa bidez haurrak bere bizitza (alaitasunak eta problemak) beste adieraziko dizkie, berak ikusi edo jakin ahal izan duena besteei ere ikusgarri eta jakingarri egin.

-GAIK AZTERTU

Haurrak berak jakingarri duen zenbait gauzaz eginen ditu galderak, orduan da bere egarri hori dela bide gai asko aztertzeke garaia.


KONTSEILUA

Egun haur diren hauek biharko egunean erakundeetan lan bat egitea, partizipa dezaten nahi badugu, gaurdanik hasi beharko dugu oinarria ezartzen, eztu noski udaletxe bat organizatzen lan egiten, baina badu berak bizi duen errealitatea eratzeko kapazitatea. Ikastola litzake errealitate horren zati bat, baditu hanborean lan gun batzuk, har-emanak hauekin, material bat. Egiten duen lana, lokala, pasatzen duen denbora. Hau dena nola eratu haurrak berak erabaki dezake. Honenbestez kontseilu honen bidez zertara heldu nahi dugun garbi dagoela uste dut.

Ondoren, gurasoei azaltzen genien kontseilu honen prozesoa astearen hasieratik eta nola bukatzen den astearen azkenean bilera bat eginaz, azterketa bat egiteko era erabaki batzuk hartzeko da bilera hau.

————— ASTEA —————

HASIERA ————— ZEHAR ————— BILERA



Ez dago esan beharrik ere haurraren askatasuna ez dela nahi duen guztia egitea edo ezer ez egitea, baizik-eta hitz emandakoa betetzea;hots, taldeari lan bat eskaintzeko erresponsabilitatea hartzea. Kontseilua gauza konplejoa izanik haurraren talde bizitza zuzentzeko bitarteko bat dela esan dezakegu.

MOTIBAZIOAK

Haurrak berez du jakiteko gogo eta beharra hobekiago esaniko, horregatik zaizkigu hain aspergarriak batzuetan bere galderak, ugariak eta era guzietakoak baitira.

Jakin-egarri hori aseko duena ez gara gu zuzen zuzenean izanen, oraindik hasi beharko du haurra dituen problema horiei (kasu honetan jakin nahi duen hori) erantzun bat bilatzen. **ARRANTZALEEN** bizitzaz jabetu nahi duela, ez gara gu horren soluzio osoa ematera johanen, gehienetan bide batzuek ikusi eraziko dizkiogu.

Berak erabaki beharko du nori galdetu eta nondik hasi. Hontan oinarrituta egiten dira herri batzuek beste batzuekin ditugun har-emanak, era berean hau. inportantea da haur bakoitzak dakiena lehenik taldekoei eta gero beste herrietakoei esku harrerazten dielako.

TEXTO-LIBREA

Honen bitartez haurrak bere barne bizitza taldekoei azalduko die bere sentimenduak ez dira itorik geldituko, berak bizi izan duen esperientzia, poza edo tristura texto horretan agertuko du.

BUKAERA

Azalpen hauen ondoren izan genuen elkar hizketa osoki agertzeak luze eramango liguke. Honegatik gehienbat nabarrentzen ziren kezkek agertuko ditugu:

1.- Askatasuna : Metodo honek ez ote duen haurra askatu egi gatziko, zioten, eta hortxe haurra galduko den beldurra zuten.

2.- Instruzioa : Honetan zertarako hitzegin nahiko zulatuak izan dira gure ikastolak galdera honekin.

MARIXABEL

26 GURASOEKIN HAR-EMANAK

HELBURUAK.-

Haurren arazoak ezagutu eta konponbide bat bilatu, eta gaur egun pertsona bezala eta herri bezala bizi dugun araznaz jabetu-erazi. Hori kontuan harturik "heziketa askatzailea" deitzen dena (hitz handiak) egin behar dugu guztiok batera.

Garbiro dagoen bezala, gure errealitatea ikusirik oso urrun aurkitzen diren helburuak eta denok batera jotzekotan, beharrezko dugu gurasoekin bat egitea helburu hoik lortzeko bidean jarri nahi baditugu behintzat.

NERE NONDIK NORAKOA.-

Ikastolako arazoetan bakarrik aurkitzen nintzenez gero, haurren heziketa lanean ez nuen inola konponbide erraza ikusten, non eta behintzat gurasoekin zerbait egiten ez nuen. Hori zen arraz-zoina gurasoekin biltzen hasteko. Horrela, lehendabiziko bilkuran, elkarrizketa baten bidez azaldu nituen ikastolako metodoa, horren zergatia, arazoak, etab.

Guraso batzuk orduan konturatu ziren arrunt ez-jakinak zirela ikastolari buruz eta orduan erabaki zen baita maizago biltzea: ikastolari buruz azterketa bat egin, haurren arazo pertsonalak ezagutu eta aldi berean zenbait puntu elkarrekin ikasi.

Ikastola aztertzea eraman gaitu, Sikologia, Pedagogia eta gure ingurua piska bat ikustera. Horretarako, abiabidetzat beti etsenplu eta gertakizun konkretuez baliatzen gara. Ikastola bere eguneroko gai eta ekintzetatik abiatuak aztertzen dugu (euskara, espresioa, esku-lanak, disziplina, etab. eta horien zergatia ikusi gabe ez gara

ra gelditzen). Honek eraman gaitu gaur egungo eskolak zer giza-
mota sortzen duen ikustera, hots, haurra inizatibarik gabekoa, be-
rekoa edo indibidualkeriaz hornitzen duela, errazkeria betean bi-
ziko den haurra, etab.) eta honekin batera gizatasunaren alderdi
guztiak aztertzen ahalegintzen gara: setsu arazoa, erlijioarena, kul-
turala, etab.

Gorago aipatu dudan bezala, gure ingurune konkretoaz baliatu-
turik abiatzen gara eta ez behin ere goi-mailako mundu baten az-
tertzetik.

Material edo bibliografia.-

Hona hemen erabiltzen dugun materiala:


- El niño de 2 a 6 años.
- Madre, compéndeme.
- La entrada del niño en la escuela.
- Cómo educar a los niños en la libertad.
- La sicoterapia en el juego
- Métodos naturales del aprendizaje de la lengua y del dibujo.
- Técnicas de Freinet
- Cartas a una maestra
- Aldizkaria, etab.

Liburu hoik ez dira osoki aztertzen, gaiaren arabera komeni
diren atal batzuk baizik. Horretaz kanpo, taldeko lanaz kanpo a-
legia, lan pertsonalari eragiten diogu ahalik eta gehien. Gaur e-
gun beraz, aztertze lan honetan aurkitzen gara. Haurren arazoen
aurrez konponbide bat bilatzeko prest egon ohi da beti ere talde-
a. Zera da interesgarriena: talde honen barne sortu den konfian-
za eta elkarrekiko laguntza.

Bilkuretara etortzen diren gurasoek hamasei izango dira, eta horiekiko har-emanak pertsonala eta taldekoak dira; gaineratikoa - ak, berriz, bakarka baizik ez ditugu ikusten.

Hortik kanpo, bizi dugu baita burrukarik asko herriko jauntxo batzuekin. Heziketari buruz iritzi ez-berdinak daudenez gero, bilerak hauei oztopo ipini eta kendu nahirik dabilta, nonahi bezala izen ilun eta etiketa bat ezarriaz.

BEGOÑA



EUSKAL KULTUR TITULUEI BURUZ

Ez da inorentzat sekretu bat, zoritxarrez, nolako maila ahul eta eskasean aurkitzen den gaur egun euskal kultura andereño askoren artean. Borondate ona, noski, ez zaio inori falta, baina bistan dago hori ez dela nahikoa haurrei behar den moduko euskal kultura bat emateko.

Andereño askok, egia da, ba dute erdal magisterioko titulu bana, kultur eta pedagogia ikasketa batzuk egin dituztela frogatzen dietena, baina zertifikazio hori erdal kultura bati buruzkoa da, eta pedagogiaz den bezainbatean, berau euskal haurren nortasunari nolabait aplikatu eta molda baldin badakio ere, ez da inondik ere beste horrenbeste gertatzen kulturaren arloan.

Horregatik, frantses titulu bat duen irakasle bat erdaldun haurrei beren kultura emateko egoki ez den bezalaxe, ez dira halaber egoki, beste gabe, legea gora behera, euskal haurrentzat erdal tituludunak. Andereñoek haurrei euskal kultura bat irakatsi behar badiete, aldezturik berek eduki behar dute kultura hori, eta kultura hori egiazki nola duten frogatzeko, zertifikatu bat lortu beharko lukete, hots, euskal estudio en titulu bat.

Titulu honek, jakina, euskaldunen arterako titulu "ofizial" eta nahi eta nahi ezkoa izateko da, legeak eskatzen dituen besteak gora behera. Alegia, ikastola baten legalizaziorako, Estatuak nahi dituen erdal kondizio eta titulu guztiak eska ditzake (arrazoiz edo gabe) baina euskaldunok ezin kontentatu gaitezke horiekin bakarrik. Horiez gainera, gure titulu ofizialak eskatu eta exijitu behar ditugu.

Euskal kultur titulu hori lortzeko premia ikusirik, arazo hau dugun erakunde ofizial egoki bakarraren eskuetan jartzea erabaki zen, Euskaltzaindian alegia, Kataluinian Institut d'Estudis catalans-ekin gertatzen den bezala.

Aipaturiko titulua eskuratzeko, hurrengo asignaturekiko programa bat eratu zen euskaltzain batzuen artean:

- a) Literatura; maila bitan. Lehen mailan autoreen bizitza eta obrak estudiaturiko lirateke, eta bigarrenean, obra aipatu batzuk irakurri, berarekin buruz examina praktiko batzuk egiteko.

Lehen mailako kursoaren galderak, guti gora behera, honelakoak lirateke: autore batzuen izenak eman ondoren, beraren bizitza, literatur lanak, obraren tankera, balio eta eskola aipatzea.

Bigarren mailarako, aldiz, testu klasiko ezagun baten zati bat emanez gero - programan aipaturiko lanen artean hautatua -, beronen egilea, euskalkia (beronen ezagugarri nabarmenekin), obraren izena, mendea, eskola, tankera, autore beraren beste lanak eta abar aipatzea.

- b) Euskal Historia; hau ere bi mailatan. Lehengoan hasieratik Nafarroako erreinuaren galtzeraino, eta bigarrenean Nafarroako erreinuaren galtzetik 1936. eko gerraraino. Testu bezala F. Zabalen liburua gomendatzen dira.

- d) Euskal Geografia; maila bakarrekoa. Euskal Herriaren geografiaren alderdi fisiko, biologiko, historiko, linguistiko, ekonomiko eta soziologikoak ikutuko dira, programaren arauera.

- e) Hizkuntza; Berarekin aita Altunak alfabetatze kanpainarako eta irakastegi ofizialetarako irakasleei begira prestatu dituen hiru mailetatik behekoenaz beteko da. Gurtienezko maila honek pertsona batek hasierako mailarik sinpleenean euskara irakasteko gai dela frogatuko luke, eta berarekin lortu nahi dutenen erraztasunerako, beste asignatura gehienetan bezala, bi kutsotan egin daiteke, biotan gure hizkuntzaren ortografia, morfologia, deklinazioa, aditza eta sintasiaren puntu funtsezkoenak eskatuz.

Honez gainera, Euskaltzaindiak prestatu ala, etsamina berezi bat eginen zaie ikasleei ikastolako hiztegi batu bereziaz, oinarrizko euskal hiztegi eskolatua ezagutzen dutela frogatzeko.

Zer esanik ez, etsamina guztiok euskaraz egin beharko dira eta ortografia kontuan hartuko da. Hizkuntzan, gainera, ahozko etsamina bat egonen da, gai ezagun bat eman ondoren, ikasleak horretaz "euskara normalean" mintzatzen ba dakiela ikusteko.



Guztira, Euskal Literaturaren bi mailetako zertifikatuez, Euskal Historiaren bi mailatakoaz, Geografiaren maila bakarreko zertifikatuaz (berau, euskal irakasle titulu izenaz, bi etsamina ezberdinen bitartez, hau da, mailaka, lortu daiteke) Euskaltzaindiak ikasleei EUSKAL KULTUR TITULU bana emanen die, honekin erdi mailako Euskal kulturaren

jabe direla frogatzeko, hots, nolabaiteko euskal batxilleratoa.

Hizkuntzan, titulu hori lortzeko eskatzen den maila, noski, hizkuntza arloan erdiets daitezkeen hiru mailetarik apalena da, baina ikasleek are maila gorago bat egin dezakete beren kontutik hizkuntzaren estudioetan, dagoen programaren arauera, sakontzen ihar duki nahi ukanez gero.

Ikusten denez, gaiak oso sakonak izan ez arren, zehazki adierazirik egonen dira programetan, eta examinak seriooki eginen ditara. Estudiatu beharra dago, beraz, titulu hori lortuko bada. Hau da, hain zuzen ere, titulu hauen helburua, andereñoak euskal kultura baten jabe egitea. Ez genuke deusik eginen baldin eta titulu a, lanik egin gabe, edozeini emanen bagenie, andereñoen eta maisuen kultur maila lehen bezain exkax geldituko bailitzaikegu.

Argiro dagokeenez, asignatura bakoitzaren maila ezberdineko en zertifikatuak banan banan lor daitezke, guztiak lortzerakoan TITULU ofizial bakarra, eskuratzeko.

Etsaminak Euskaltzaindiaren ardurapean eginen dira, beronek onharturiko programari segituz, garai aditzera emanen den egunean. Ikasleen erraztasunerako, etsaminak, urtean behin gabe, bi edo hiru aldiz eginen dirateke, agian, Maiatzean, Irailean eta Gabonetan.

Etsaminetan eska daitezkeen galderak eta materiak - bai eta berauei buruzko bibliografia ere - Euskaltzaindian dauden programetan topa daitezke, eta aski da bertara eskatzea (Ribera 6, Bilbao edo-eta Palacio de la Diputación, Donostia).

Etsaminatzerakoan, ikasleek etsamin pagu bat egin beharko du kete, etsaminatzaileek azterketak korrejitzeko duten lana ordaintzeko nolabait.

Askatasun osoa dago, noski, erakunde ezberdinen aldetik, Euskaltzaindiaren programaren eredura, asignatura hauk taldeka eman eta esplikatzen, baina etsaminak, hori bai, beti Euskaltzaindiaren ardurapean eginen dira.

Ez dugu dudarik egiten Euskal Kultur tituluak euskaldun arduratu guztiok, eta bereziki andereño maisuek, bihotzez eta kontzientziaz hartuko dugun helburu bat izanen direlakoan.

XABIER KINTANAK

GURE IKASTALDIAK

Egunoroko lanean sortzen zaizkigun hainbat beharrei erantzuteko asmoz edo, talde-lanak eta nolabaiteko ikasketak eratu izan ohi ditugu. Azken aldian, Marta Matak irakurketari buruzko ikastalditxoak eratu genuen, eta honek izan zuen harrerak garbi adierazi zeukun gure artean honelako gaiak lantzeko dagoen premia eta irakasleen artean oso gogozko gertatzen dela gainera.

Ikastaroan zehar honelako ikastaldi batzuk eratzeko asmoz, hona azkenik eratu dugunaren haria:

- gaiak : Sikomotrizitate, haur ttipientzat eta Pepa Odenak zuzendarik .
- Mintzaira, lehen mailakoentzat eta Marta Matak zuzendurik .

Lan hau osatuagoa izan dadin zenbait material ere prestatu da. Alde batetik, sikomotrizitateko ariketa sail baten bilduma eta baita atera berriak diren "Ikastola liburutegia" xortako lehen lau liburuxkak ere.

Gure iritziz behintzat guztia moldaturik zen : Ikastaldia eatorriko ziren 250 lagun; irakasleak; materiala, tokia etab. eta non Martxoaren 21-22-an Loiolan eragozpenak ditugula konturatzen garen!

ZER - NOLA GERTATU ZEN :

Beste lekuetara bezelaxe johan ginen Loiolara toki eske, eta hango baietza harturik ikastaldia eratzen jarraitu genuen. Dena dela hona urrutizkinaz hitzegin ondoan han Loiolan bertan jesuiten zuzendariarekin izan genuen harremanaren berri:

- Begira, Ikastolako arduradunak gara eta Donostiatik gatoz. Martxoaren 25-26 an pedagogia-ikastaldi labur bat egin nahirik toki eske gatoz.

-Bai, bai, nik monjakin hitzegin^odut eta hemen 77 lagunentzat lekua izanen duzue, larunbateko bazkari, afari, lo eta igande goizeko gosaria 200 pezeta izanen da.

Gure aldetik baiezkoa eman genion eta 25 goizean han azalduko ginela eta gelditu ginen. Orduan esan zeukun, alegia, jesuitak, ikas kas-gelak Azpeitiako Ikastolari utziak zituztela eta horren arduradun Gaztañaga zela. Hantxe geundelarik porteritik Gaztañagari deitu genion berarekin hitzegiteko asmoz, baina ez zegoen Ikastolan eta orduan Labordak esan zeukun: "Horretaz ni arduratuko naiz, zuek Donostiaraino johan behar duzue eta lasai johan, hori nere baitan gelditzen da.

Erantzun hontan oinarriturik ikastaldia eratzen jarraitu genuen, bai deiak, materiala eta besterik. Bailaratako arduradunen bidez izenak bildu zirenean Loiolara johan behar genuen, beste hainbeste ostatu behar bait genituen. Bestalde, lanerako gelak ikusi eta zer-bait gehiago behar bazen ere ikustea ongi izanen zela pentsatu genuen, eta honela lehenik zuzendariarengana johan ginen, baina ez zen etxean, hurrengo egunean deituko geniola eta beste eginkizunetan jarraitu genuen. Monjetara johan eta han 77 lagun horien ostatua ordaindurik utzi genuen. Loiolako beste bi jatetxetan 65 lagunentzat ostatua aurkitu genuelarik bihurtu ginen.

Hurrengo goizean Loiolara zuzendariarekin hitzegiteko deitzean hara zer esan zeukun: zuek honutz etorri zinetenean, nik ez nekien nor zineten, izan ere ez bait zineten identifikatu ere. Eta non jakiten dudan elizaren ordezkariarekin ez duzuela ezer kontatu. Elizaren bidetik at dohazen ikastoletaoak zaretela. Lege babesik ere ez duzue... Gu elizaren bidetik dohazen ikastolekin ados gaudete, baina zuekin ez, beraz ez daiteke ikastaldi hori hemen egin. Gainera, zuek noiz deitu zai nengoen. Guk berriz, gelditu ginen bezala gelditurik ez genuen haruntz deitzeko beharrik somatu. Ezezko hau urrutizkinaz hartu genuen garaian, berarekin personal-

ki egon nahi genuela eskatu genion, baina berak ez ez zeukula inongo soluziorik emanen eta esateko guztiak esanak zituela esanaz elkarrizketarako eragozpenak jarri zituen.

Berehala, elizako ordezkariarengana johan ginen eta hau galdetu : irakasleen ikastaldiak direla-eta, elizak hartu ahal du zer-baiten erabakirik? Behingoan jakin behar bait dugu!
Eliz-ordezkariak honela erantzun zeukun : nik dakidala behintzat elizak ez du horrelako erabakirik hartu. Eta zueri lekua utzi edo ez utzi leku horren ardura duenaren baitan dago. Beraz, berak behar du baiezkoa edo ezezkoa eman.

Berriro ere honen berri emanaz zuzendariarekin egon ginen eta hau zion : "Erraz da honelako erresponsabilidatea besteen bizkar botatzea. Ostatuarena eginik bada ere lanerako gelen kontua ez dago gure esku, baizik horiek Azpeitiako Ikastolari utziak direnez gero, Gaztañagakin egon beharko litzake."

Guk Gaztañagarengana abiatu ginenean Labordak deitu zuen esanaz : ez zirela lokalaren arduradunak emaniko erantzunaren zai egonen berak erabakia harturik zutela eta han ez zela ostaturik izanen. Gaztañagak zionez ikas-gela horien ardura ez zen berea bakarrik, talde oso batena baizik eta ezin erantzun bat taldearekin konta gabe eman, baina urrengo eguneko eguerdian deituko zeukula adierazi zeukun.

Esan eta izan, ostegun eguerdiko ordubik inguruan Gaztañagaren deia : oraingo, ez gara horrelako responsabilidadarik hartzen animatzen, beste baten...ia...

-Baina zer erresponsabilidate? Legearena? bai noski legearena.

Hontantxe ebaki zen gure ikastaldiaren haria.

Geroz, Donostia aldean egin ote zitekean edo ikusten hasi ginen. Bi lekutan izan ginen Goseko "Mariaren Bihotza" deitzen den ikastetxean eta seminarioan.

Lehenengoan, larunbat eta igandez programa bat eginik dutela eta guk behar genituen gela horiek beterik izaten direla.

Beste gela batzuk eskaini zeuzkiguten, baina oso ttipiak gertatzen ziren. Beraz, hemen ere ezin zen, baina benetan ezin zen.

Seminarioan galdetu genuen garaiean oso denbora motza zela berehala esan zeukuten, baina hauek ere urrengo egunean erantzute kotan gelditu ziren. Esan bezala, ostiral goizean bertako rektoreak etorri zitzaigun taldean hitzegin zutenaren berri emanaz: "Honelako erabakiak hartzerakoan talde oso bat bildu behar dugu, baina hain denbora motza izanik, talde hontako asko kanpoan daude eta bildu garenok bakarrik ezin erabaki.

- Kontestoa dela-eta erabaki inportantea da guretzat.
- Gertatuaren ezaguera behar dute jakin edo izan, oraingoz ez dute garbi ikusten, ez dago behar hainbat denbora guztiok biltzeko.
- Egungo ezezkoa ez da betirakoa eta hurrengo baterako oso serio aztertzeke asmoa hartu dugu.

Hauxe izan da hitz batzuk gehiago edo guttiago gertatu denaren haria. Dena dela atea betirako ez dituztela itxi esan daukuten hauekin kontu ote genezake hilabete barru honelako lan bat eratzeko?

ARANTZA

ATAUNGO PATRONATOA DELA - ETA

Patronatoa honen berri eman aurretik, beharrezko izango da Ataunen Irakaskintzan zer-nolatan aurkitzen zen ezagutu-eraztea.

Hara, 2.500 bizilagun gara hor nonbait gure herrian, hiru hauzotan banaturik. Etxe-bizitzak multzoka, oso zabalduak aurkitzen dira. Hori horrela, gure herria zazpi eskolekin aurkitzen zen: bost nazional eta bi pribatu. Zazpi eskola alafede! Aian bat, San Ger^gorion bi eta San Martinen lau.

Gisa honetan nola graduatu eskolak! Bederen, graduatu esaten dugu. Eskolaren arduradunak gurasoek izan behar dutela ikusten genuen, eta irakaskintzak, lehenik, non, zer inguru-giro behar duen, zein hizkuntzatan oinarritua, etab, ... Toki onean zegoen gauza! Gurasoek parte harturiko irakaskintzaren orde.....

Horrela bada, graduatu ezaren soluzioa bilatu nahirik, Kontseilukoek (udal-etxe^{ko}ek) eta hiru hauzoetako ordezkariak egin zituzten bilerak; baina ondorioak erakutsi daukunez, horretan gelditu ziren gauzak: asmoetan.

PATRONATOAREN SORRERA.-

1) Herriko seme batek, hil zenean, Joan Barandiaran apaiz jaunak alegia, bere etxe eta ondasunak utzi zituen herriarentzat irakaskintzarako erabil zitezten. Honela sartu ziren herrian monja merzedariak eta zenbait urtetan zehar ehunen bat haurrekin (parbulo eta nexka) arizan dira eskola ematen.

2) Eta monjak, ordea, 1.970 urtean adierazi zioten Udalari ezin zutela eraman eta bazohaztela herritik.

Kontseilukoek azaltzen die prolema gurasoen. Gurasoek biltzar bat egiten dute. Hiru soluzio bide daude:

- Eskola pribatu bezala jarrai dezala.
- Eskola nazionalaren soluzioa.
- Patronato ofiziala egitea.

Pribatuak ekonomiaren arazo handia azaltzen zuen. Nazionala, berriz, aurreko esperientziak azaltzen dauku zer soluzio zitekeen. Biok utzi eta hirugarren ikusi zuten soluzio biderik egokien bezala: patronato ofiziala alegia. Zergatik?

- 1.- Ekonomiaren alderdia: irakasleak estatuak ordaintzen dituelako.
- 2.- On diren irakasleak hauta ditezkeelako. Bi arrazoin hoiengatik hautatu zen sistema hori.

Gurasoek, soilki, bide horretatik bakarrik ikusten goitik ezarri gabeko ikastola bat eraikitzea eta gaur egun asko hitzegiten den bezala, berak "protagonista" izanik, irakaskintzaren antolatzea. Haurrak nongo diren, zer hizkuntza mintzatzen duten, bizi duten giroa eta abar kontuan ukan behar dela esaten den "teoria" praktikan jartzeko bide bakarra. Gure eskola da esateko bide bakarra.

Patronato batzordea honela osatzen da: kontseiluko ordezkariak, elizakoak, guraso-elkartekoak eta haurren gurasoen ordezkariak.

LEHEN URRATSAK.-

a) Lehendabiziko kursoa monjak utzi zuten hutsunea betetzea izan zen guti-asko, hots, parbulo eta nekak bakarrik eskolatu ziren.

Behar da esan lan hauek denak, Patronatarako batzordea eta udalaren kezka eta laguntza elkarreratu zirelako egin ahal izan ziren.

rela.

b) Bigarren kursoari begira, oraingoari begira alegia, herri oso-ko ikaskintzari buruz eta udalak onarturik, planifikazio berri baten beharra azaldu zitzaion "Delegación de Ciencia" .. delako ordezkariari. Honela izan behar zuela ikusten zen:

- San Martinen, eskola bat, patronato moldekoa, basikako bost graduentzat zerbitzen duena.

- San Gregorion, eskola bat, hiru graduentzat, Aiakoa, Ergoienakoa, Arrondokoa eta San Martingo nazionalak hertsiaz.

d) Bidea hau izanik, basikako zortzi graduak Patronatoan ematera heldu behar litzake:

- Patronatoan, San Martingo nexka-mutiko denak eta Aia eta San Gregorioko 4, 5, 6, 7 eta 8.en graduak hartuaz.

- San Gregorion, basikako lehendabiziko hiru graduak, han berekoentzat eta aiatarrentzat.

Lortu dugu bide horretan jartzea, baina erdizka bakarrik. Izan ere patronatoari nazional-moldeko hiru gradu ezarri dizkiote. Baditu bost gradu, baina baina bi lehenengoak bakarrik patronatoaren sistema barne.

Eskola nazionala, berez, haur falta zutelarik, hesstera zetozen. Hara, San Martingo eskola nazionala, adibidez, bost edo sei haurrekin zegoen.

Zergatik ezarri behar zeukuten beren sistema? Gurasoen esku-bideak eta... zein hitz politikak! Jokabide hauk oro Gobernadore, Delegadu, etabarren onespenez burutuak izan dira. Esan ere esan daukute herrian emango dela oinarrizko irakaskintza maila oro, baina zer sistimatan?

Zertarako, batek galdetzen du, ikastegi eder bat barnez lehen bezalako heziketa moldea ematekoz? Halere, nahiz-eta iluna ikusi etorkizuna, eginik ditugu eskeak.

Egiaz, itxaro dugu gurasoengan, berak protagonista izate bidean abiaturik direlarik eta, lehengo esperientzia bistan, Patronatoaren urte pare honetako bizia edo martxa ikusirik, seguru gaude, ez dela hau dena gauza huts bat. Eta halaber atzeraka egiteke, aski kemen izanen dutela paperetan hain maiz azaltzen diren eskubideak errealitate bihurtzean ari izateko, ari diren bezala.

Berdin uste dugu Udaleko edo Kontseiluko enaldetik ere. Lehen, herriak zer ikusia zuen elkartearen irakaskintza-kezka eta laguntzarekin eragin bazuten, gero ezarri daukuten alkateak ere bide berari jarraituko ahal dio.

Gurasoen nahia ikusia dago.

Geroa izango da testigu.

: M. Karmele



41

DIN DAN... BOLEERAN

1) LOIOLAKO IKASTALDIA

Martxoaren 25-26 rako antolaturikz zen ikastaldiak porrot egin duela edonork daki gure artean. Agian, ez dakiena zera da: "zerrikeria" galanta johan dela. Eta bigarren aldiz johan ere. Nola jesuitak hala Loiolako bailarako ikastola-batzordea (Gaztañaga jauna barne) biziro eskertu beharrean aurkitzen gara eta denok esku-zartaka txalo joko diegu, behatza zupatzen ez gaudela pentsa ez dezaten. Ez datozela orain, gertatuaren ondotik, beren buruak xuritu nahirik behintzat. A zer nolako leialtasuna dagoen bazterretan! Erljio garbia benetan beldurraren "jainkoa" adoratzeko dutenena.

2) SIKOMOTRIZITATE LIBURUA.-

Dena dela, Loiolako ikastaldirako prestatuak zen materiala (fitxa liburua eta teoria liburua) aski taxuz eman dira argitara. Eta hori, hor dago, beti ere eginak bait du bidea urratzen. Ttipien mailan lanean ari denak material ona aurkituko duen segurantzia baduke liburu horietan.

3) IRAKASLEGAIK

Aurreko alean aipatzen zen zerbait Joanes Etxeberri-Eskolari buruz. Hori eta besterik ere badute irakaslegaiak esku artean.

Guztiz jator eta kezkatu datorkigu atzetik gazte jende hau. Ez gu guk nahi hainbat, egia, edo behar diren hainbat noski, baina bai multzo ederra. Ikastaldi bat egina dute Aste Sanduan hemen, eta Bazko Astean Iruinean ere bai hango multzo batek. Datorrela indar berria premia berriak datozen heinean. Premiarik nola ez den falta.....

4) BARZELONARA

Gure arteko zenbait, nola Gipuzkoatik hala Bizkaitik, Barzelonan izan dira Aste Sanduan ikastaldi batera johanik. Arrunt interesgarri izan dela diote hango lan eta har-emanak. Ez Ea datorren zenbakian artikulotxobat bat ematen daukuten horri buruz.

5) IKASTOLA LIBURUTEGIA

Lehendabiziko lau aleak (beste lau bidean) eman dira argitara eta zabaldu ere bai, Printze Ttipia delako liburu ezagunarekin batera. Honek, 75 pta. balio du, eta besteek 15 bakoitzak. Hain merke ateratzearen arrazoina badakizute "Gauza Harrigarriak" delako liburu sortari eta "Iñaki-Beobide banatzaile" delakoari zor diogula. Ardura apur bat eskatzen da gure aldetik emanik den hitza bete dezagun: alegia, banatzaile horren ordezkariari agindu genien laguntza eta arreta eskaintzea.

I. Beobide eta Gordailu-Haurride izanen dira banatzaile. Herri bakoitzean andereño arduradun bat ipini da. Oraingoan abegi ona izan duela ikusi da baina dei bat egin nahi zaie irakasle guztiei: ikastola-liburutegia deitzen den sorta honek luzea duela soka; lan handi bat hasia dela eta guztion artean ere urteetan bukatuko ez dugun lana, noski. Betoz kritikak, betoz gaiak eta... halako edo holako gai litzakeela interesgarri adierazi bakarrik ez, lan du ere bai.

BERRIKETARI

72-IV-10

NON-ZER

Apurrak.....	1
Aintzin-solasa.....	2
Metodo globalaz.....	3
Hezurdunak.....	10
Setsu arazoa gurasoekin	16
Goiherriko bailaran herriz-herri (Gurasoekin elkarrizketa)	20
Gurasoekin har-emanak	26
Euskal-kultur titulua	29
Gure ikastaldiak	33
Ataungo Patronatoa.....	37
Din dan...boleran.....	43

